

**BERGARAKO UDALA**  
**AKATS ZUZENKETA**

Obra eta Zerbitzuburu plaza lehiaketa oposizio bidez hornitzeko Udalak onartutako oinarrien I. Eranskinean (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2008ko azaroaren 21ean argitaratuak) aurkitutako akatsak zuzendu ditu Alkateak 2009ko martxoaren 11n emandako Dekretu baten bitartez eta iragarki honen bitartez jakinarazten dira:

- “25. Gipuzkoako bide eta errepideak. 17/1994 Foru Araua. Sailkapena. Jabari publikoa. Babesguneak” dioen lekuan, “25. Gipuzkoako bide eta errepideak. 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretua Arau-emailea. Sailkapena. Jabari publikoa. Babesguneak” esan behar du.
- “34. Eraikuntzako Oinarrizko Araua: Eraikinetako suteen kontrako babes-baldintzak. “NBE-CPI-96” dioen lekuan, “ 34. Eraikuntzaren Kode Teknikoa: Suteen kontrako babesa. “DB-SI eta DB-SU” delakoa esan behar du.

Bergaran, 2009ko martxoaren 12a.

IDAZKARIAK